

EUSKALTZAINDIA'REN

BOSTGAREN URTEKO BATZARAK

**Donestebe'n (Napañoa), Udal-etxean, 1923'ko
Agoñaren 8'an.**

Azkue maipuru dutela euskaltzain abek bildu dira: Kanpion, Olabide, Landeñetxe, Eguskitza, Altube, Intza, Lakonbe ta urgazletatik Bahr jauna.

Otoitzez asi da batzaraldi au.

Maipuru jaunak Eleizalde euskaltzain argia zanaren eriotzaren beñi dakar, ta gizon azkar zanaren oroitza mintsua egin du itz samur ta egokiaz.

Mintasunaren negar-negañez Euskaltzaindia altxa da ta ildako lagun maitearen alde otoitz Jainkoari egin-da amaitu da batzaraldi au urngo egunean Meza batera joateko asmoz.

**Donestebe'ko Udal-etxean, 1923'ko Agoñaren
9'an.**

Aurko batzaraldian aipatu diran euskaltzain berak bildu dira eta ona artu diran erabakiak.

1. Euskaltzain-lagunaren utsuna, araudiak dion bezela, iragartzea erabaki da.

2. Gazteiz'ko apezpiko jaunari zorionik bikañenak eman bear zaizkio bere *Pastorala* lenbizikoz euskeraz idatzi ta zabaldu duelako,

3. Aita Eskolapioak Bera'n, Napañoa'n, daukaten ikastolaren Batzar-Artezkariari eskari abek egin bear zaizkio: Ikastolako aita apaizen artean euskaldun bat edo bi izan ditezela, au da, euskera dakitenak. Elizkizunetan ibili dezatela euskera al duten txanda guzietan. Ikastolako ikasbidetan, gutxinan bederik kristau-ikasbidean ta irakurpen batzuetan euskera erabili dezatela.

4. Eskari berdiña egin bear zaio Donestebe'ko Ikastola bati. Badira emen Monja irakasleak, ta oien artean ez da iñor euskera dakienik. Aben Zuzendariari eskari au egin bear zaio: ekañi ditzala eñi ontara bi monja euskaldun len dauden erdeldunen orde. Oñela egingo balitz, eñez eman lezakete euskerazko dotriña eta zer edo zeren irakurpen.

5. A. Lezo'ri erantzun bear zaio, Euskaltzaindiak txosten ona eman lezakela bere lan *Nere Jagun*—ez, bañan ezin lezakela eun liburu artu Gazteiz'ko apaizgai artean banatzeko. Aldi batez esaten zaio, len emandako mila peseten zoña orañdik ere ordaintzetako, luzatzen zaiola.

6. Lakonbe jaunaren bitartez Euskaltzaindi onek artu du idazti bat «Bretañaiko izkeltzañak ango idazleai egiten dizkien oañak». Onetxeri erantzutea Lakonbe berari egotzi zaio.

7. Aita Karmeldar batek Euskaltzaindiaren azterpean jartzen du berak idatzi edo euskerara itzuli duen *Imitación de Cristo*. Euskaltzaindiak lan oñen azterketa urgazle diran Manterola ta Ibargutxi jaunai egotzi die ta oiek zer txosten eman, ala izango da Euskaltzaindiaren egikizuna.
